



auzoekin

Tokiko errealitate eta beharrianen Azterketa Diagnostikoa

BIDEBIETA-IPARRAGIRRE-IZASKUN

2025eko iraila

Egileak:  **Eikertalde**
next

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. METODOLOGIA ETA LAN-PROZESUA	5
3. EREMUAREN AURKEZPENA	10
3.1. Biztanleria eta bizitokia	10
4. EREMUKO AZTERKETA-DIAGNOSTIKOA	15
4.1. Ekonomia, enplegua eta establezimenduak	15
4.2. Etxebizitza	21
4.3. Ingurumena, hiri-espazioa eta garraioa- mugikortasuna	23
4.4. Bizitza eta komunitate-bizikidetza	25
4.5. Gobernantza eta zerbitzuak	30
5. DATU KUALITATIBOAK	33
5.1. Elkarrizketa sakonak	33
5.2. Talde eragileen sorrera	34
5.3. Talde elkarrizketa	36
5.4. Tailer irekiak	39
5.5. Ibilbide gidatuak (Deribak)	41
6. IRAKURKETA SINTETIKOA ETA ONDORIO NAGUSIAK	52
7. GAKO ETA LEHENTASUN NAGUSIAK	55
8. GLOSARIO LABURRA	57

1. SARRERA

Tolosako Udalak abiatutako AuzoEkin estrategiak tokiko-garapen eredu berri baterako oinarriak ezartzea bilatzen du. Tolosako auzoak 8 eremutan sailkatuz, eremu bakoitzeko herritarren inplikazio aktiboa sustatu eta gobernantza-esparru parte-hartzaile berri bat osatzeko bideari ekiten zaio. Tolosako Udalaren eta bizilagunen arteko harremanean sakonduz, plangintza eta erabaki-hartze esparru eta prozesu eraginkorrakoak ahalbidetzea da asmoa, eremu bakoitzaren behar espezifikoak aintzat hartuz. Hortaz, egitasmoak 2 premia nagusiri erantzuna ematea bilatzen du: Tolosako auzoen garapen integrala eta orekatua bultzatzea, eta herritarren erabaki-gaitasuna areagotzea.

Ibilbide horretan, lehendabiziko eginkizuna eremu bakoitzaren egungo egoeraren azterketa diagnostiko integrala egitea da. Diagnostiko hauek dira, hain zuzen ere, eremu bakoitzeko aurrera begirako bide-orriak (Auzo planak) formulatzeko oinarria. Horrela epe luzerako ikuspegia barneratzen duen gobernantza eredu eta plangintza estrategia errotuak egituratzeko balioa izan beharko luke AuzoEkin proiektuak.

Tolosako Udalak 3 eremu izendatu ditu AuzoEkinen aurreneko esperientzia errealak egituratzeko: Landa auzoak; Bidebieta-Iparragirre-Izaskun; eta San Esteban. Azterketa honek eremu hauetako bakoitzaren analisi xehetua aurkezten du, bakoitzaren testuingurua, bilakaera, egoera eta beharizan nagusienak azalduz.

Azterketa-diagnostiko hau eremu honetako lehentasunak zehaztu eta aurrera begirako garapen estrategiak finkatzeko abiapuntu gisa aurkezten da, ondorengo helburuak bilatuz:

- 1.** Eremuko ezaugarriak eta bilakaera zehaztasunez ezagutzea, demografiari, hiri-espazioari, etxebizitzari, ingurumenari, ekonomiari, enpleguari, bizikidetzari, zerbitzuei, gobernantzari... dagozkion ikuspegiak txertatuz.
- 2.** Oinarri kualitatibo eta kuantitatibo sendoak dituen bermedun azterketa garatzea, datu enpirikoetan eta bizilagunen ahotsen entzute aktiboan oinarritutako informazioa eta ezagutza eskuratuz.
- 3.** Eremuko bizilagunen eta eragile sozioekonomiko esanguratsuenen parte-hartzea ahalbidetu eta inplikazio zuzena sustatu auzogintza aktibatuz.
- 4.** Eremuko zehaztasunak aintzat hartuz, Auzo planen bidez egikarrituko den udalerriko tokiko garapen estrategia orekatua bideratzeko oinarriak jartzea.
- 5.** Eremuaren ardura duten talde eragileen eta udalaren arteko interlokuzioan eta elkarlanean oinarrituko den tokiko gobernantza eredu iraunkor eta emankorra eratze oinarriak egituratzea.

Azterketa-diagnostikoa garatzeko, eremuaren analisi sakon eta zorrotza ahalbidetzen duen lan-metodologia erabili da. Ikerketa teknika analitikoen, kualitatiboen eta kuantitatiboen arteko konbinaketa hirukoitzetik egituratu da azterlana. Era horretan, aztergai den eremuaren konplexutasun osoa barneratzeko gaitasuna bermatzen da. Lehendabiziko aurreirakurketa analitikoak eremuko testuingurua kokatu eta haren kasuistiken eta ibilbidearen birpasa egiteko balioa du. Horretarako, Udalak eskainitako informazio dokumentalaren analisisa gauzatu da, bereziki.

Eremuko egungo errealitatearen irudia lortzeko garatutako ikerketa kuantitatiboak bi input nagusi baliatu ditu. Alde batetik, Udalak eskainitako informazio estatistikoaren eta iturri estatistiko ofizialetatik eratorritako informazioaren ustiaketa eta analisisa gauzatu da. Bestetik, eremuko biztanleriaren lagin adierazgarri bat hautatuta, aurrez-aurre garatutako inkestetatik eratorritako informazioaren ustiaketa eta irakurketa analitikoa gauzatu da.

Azkenik, bizilagunen beharrianak ezagutu eta aurrera begirako lehentasunak identifikatzeko garatutako ikerketaren alderdi kualitatiboari dagokionez hainbat izan dira bizilagunen beharrian erabilitako teknikak. Hortaz, eremuko informatzaile klabeekin elkarrizketa sakonak osatu dira, eztabaida saio irekiak garatu dira, aldez aurretik hautatutako bizilagunekin focus talde saioak egin dira, eta bizilagunekin antolatutako ibilaldi gidatuak gauzatu dira.

Azterketa-diagnostikoaren egiturari dagokionez honako sekuentziazioa jarraitzen da: lehendabizi, eremuaren aurkezpen orokorra egiten da. Aurkezpenak eremuaren ezaugarri orokorren azalpena egiten du. Jarraian, eremuko azterketa zehatzaren emaitzak eta irakurketa gurutzatuak plazaratzen dira, biztanleriaren egiturari, ekonomiari eta enpleguari, hiri-espazioari, etxebizitzari, mugikortasunari, bizikidetzari etab. erreparatuz. Ondoren, azterketa-diagnostikoaren ondorioztapen nagusiak adierazten dira sintesi gisa.

Bukatzeko, era orokorrean, AuzoEkinen ondorengo faseari begira, era bateratuan eremu guztietan amankomunean azaldutako elementu nagusiak aintzat hartuz, lehentasunen zehaztapenerako aurreneko gako batzuk irudikatzen dira.

2. METODOLOGIA ETA LAN-PROZESUA

Aurreazterketa analitikoa	Input kuantitatiboak	Input kualitatiboak
☐ AuzoEkinen aurkezpena ☐ Material dokumentalak	☐ Informazio estatistikoa ☐ Inkestatze prozesua	☐ Talde eragileen sorrera ☐ Elkarriketa sakonak ☐ Focus taldeak ☐ Saio irekiak ☐ Ibilaldi gidatuak

A) Aurreazterketa analitikoa

Aurreazterketari esker proiektuaren testuingurua kokatu da. Tolosako dinamika orokorra birpasatu eta eremuko bilakaera ezagutu da. Udalerrri mailako eta eremuari era espezifikoan eragiten dioten lanketak gainbegiratu dira eta eremuaren ibilbidea arakatu da. Hurbilketa honen bitartez lan-planteamenduaren eta -prozeduraren nondik norakoak aditzera eman eta egokitu dira.

AuzoEkinen aurkezpen saioak

Prozedura:	Banakako aurkezpen saio ireki bana eremu bakoitzean
Helburua:	Bizilagunei dinamikaren berri ematea, egitasmoaren abiapuntua, helburuak, prozedura eta faseak azalduz
Data:	2025eko martxoa

Material dokumentalak

Dokumentuak:	Gai anitzei buruzko txosten teknikoak, diagnostikoak, planak eta parte-hartze prozesuak aztertu dira
Prozedura:	Dokumentuen irakurketa eta edukien analisi inductiboa gauzatzea
Helburua:	Ondorengo lan-faseetarako oinarritzko elementu aipagarrien identifikazioa eta kategorizazioa

B) Input kuantitatiboak

Lan-sekuentziazioaren bigarren ardatza informazio kuantitatiboaren erabileran datza. Horretarako iturri anitzetatik eratorritako datu kuantitatiboak bildu, tratatu eta ustiatu dira. Informazio kuantitatiboak eskainitako inputak eremuaren egungo egoeraren erretratua egiteko eta honen bilakaeraren jakitun izateko baliatu dira, batik bat. Diagnostikoaren ekarpen kuantitatiboa iturri ofizialetako fitxategi estatistikoak eta inkestatze-prozesu sakon bat erabiliz eman da. Era berean, bide batetik eta bestetik lortutako informazioaren triangulazioa burutu da emaitzen adierazgarritasuna sendotzeko.

Informazio estatistikoa	
Prozedura:	Jatorrizko datuen aurre-sailkapena, batuketa, baheketa, antolaketa, ustiaketa, gurutzaketa eta erlatibizatzea osatu dira kasu guztietan, irakurketa espezifikoak eta integralak ahalbidetzen dituzten emaitzak garatuz
Helburua:	Plano desberdinetan eremuari dagokionez egungo egoera zein den behatzea eta egon daitezkeen erronka nagusienak identifikatzea Udal informazioa Errolda Aldagaiak: sexua, adin-taldeak, nazionalitatea, jatorria, titulazio maila, emantzipazio maila Helburua: biztanleriaren ezaugarri orokorren azpimarra, eremuen aurreneko erretratu demografikoa lortuz Epeak: 2015 eta 2024ko erroldak Etxebizitza huts potentzialen errolda Aldagaiak: etxebizitza huts potentzialak Helburua: etxebizitza parkearen erabilpenaren hurbilketa, eremuetako etxebizitza huts potentzialak identifikatuz Epeak: 2015 eta 2024ko etxebizitza huts potentzialen erroldak Eustat JEGID (Jarduera Ekonomikoen Gida Zerrenda) Aldagaiak: establezimenduak eta enpleguak Helburua: establezimenduen eta enpleguen begirada, sektoreetako jarduera ekonomikoen arabera Epeak: 2015, 2018, 2021 eta 2024ko JEGIDak Lanbide Eskatzaileak Aldagaiak: sexua, adin-taldeak, jatorria, titulazio maila, lan-sektorea, langabezia mota eta iraupena eta jasotako laguntzen tipologia Helburua: langabeen ezaugarritzea osatuz eremu bakoitzeko langabeziaren irudi dinamikoa jasotzea Epeak: 2015, 2018, 2021 eta 2024ko eskatzaileen fitxategiak Kontratazioak Aldagaiak: sexua, adin-taldeak, jatorria, titulazio maila, lan-sektorea, lan-lekua, lan-mota eta lanaldia Helburua: kontratazioen birpasa, eremu bakoitzeko bizilagunen lan-egoera berrien irudi orokorra jasoz Epeak: 2015, 2018, 2021 eta 2024ko kontratazioen fitxategiak

Inkestatze prozesua

Prozedura:	Eremuan aurrez aurre garatutako inkestatze-prozesu konbinatua (galdera itxiak eta iritzi-galdera irekiak), erantzunak tablet elektronikoetan, CAPI (Computer-Assisted Personal Interviewing) sistemaren bidez erregistratuz
Lagina:	Erroldako datuak aintzat hartuz definitutako lagin estatistikoki adierazgarria » 3 eremuen osotasuna: 2.543 biz. / 562 inkesta (3,7% akats maila %95 Konfiantza Mailarako) Bidebieta-Iparragirre-Izaskun: 1.830 biz. / 294 inkesta (5,3% akats maila %95 Konfiantza Mailarako)
Aldagaiak:	Enplegua, ekonomikoa, etxebizitza, ingurumena eta hiri-espazioa, garraioa, bizitza eta komunitatea, gobernantza eta zerbitzuak...
Helburua:	Bizilagunen ikuspegi zuzena jasotzea eremuko egungo baldintza eta egoera islatuz eta aurrera begirako erronka eta beharrian nagusienei buruzko lehendabiziko aztarnak antzemanetz
Data:	2025eko maiatza-ekaina

C) Input kualitatiboak

Informazio kuantitatiboarekin batera informazio kualitatiboak hartzen du lan-prozesuaren zatirik nabarmenena. Input kualitatiboak ezinbestekoak izan dira alde zurretik garatutako analisi kuantitatiboa osatzeko eta fintzeko, eremuaren errealitatearen ikuspegiak txertatuz. Gainera, aurrera begirako plangintza faseetan kontuan izan beharreko premien lehenespena egituratzen hasteko funtsezko elementua bilakatu da. Hainbat izan dira, komunitate-dinamikak gaituz garatu diren parte-hartzean oinarritutako lanketak, hala nola, talde eragileen sorrera saioak, elkarrizketak, saio irekiak, focus taldeak, eta ibilaldi gidatuak. Bide hauetako bakoitzetik lortutako informazioa elkarren artean kontrastatua izan da elementu esanguratsuenak azpimarratuz.

Talde eragileen sorrera: Talde eragileak dira lurralde batean eragina duten edo interesa duten eragile, norbanako edo kolektiboen multzo antolatutak, partaidetza-prozesu batean erabakietan parte hartzeko eta orientatzeko gaitasuna dutenak. Partehartze prozesuetan, talde eragileak funtsezkoak dira hasierako diagnostiko soziala egiteko, norabide estrategikoak markatzeko eta komunitatearen ordezkariak zabaltzeko (Subirats et al., 2008). Horrelako taldeek auzoko ahots anitzak biltzea bilatzen dute, ikuspegiak aberasteko eta konfiantza soziala eraikitzeko.

Talde eragileen sorrera saioak

Prozedura:	2 orduko iraupeneko lan-saio irekia, proiektua berrazaldu eta espektatibak partekatuz, eta taldearen eraketarako eta eremuaren egungo egoeraren aurreneko hurbilketa jasotzeko lan-dinamika parte-hartzaile espezifikokoak gauzatuz
Helburua:	eremuan AuzoEkin dinamika gidatzeko partaideen identifikazioa gauzatzea, talde eragilea eta honen antolaketarako erak finkatuz. Honez gain, eremuko indargune eta mehatxuak identifikatzen hastea
Parte hartzea:	33 bizilagun
Data:	2025eko apirila

Elkarrizketa sakonak: Elkarrizketa sakonak tresna eraldatzaile gisa ulertzen dira ikuspegi kritikotik, komunitatearen ahalduntzea eta botere-harremanen desnaturalizazioa bultzatzeko ahalmena dutelako. Metodo honek aukera ematen du subjektuen ahotsa eta bizipenak lehen planora ekartzeko, egitura sozialek nola eragiten duten azaleratuz eta eraldaketarako gakoak identifikatuz.

Elkarrizketa sakonak

Prozedura:	jarraipen gidoi arinetan oinarritutako 2 elkarrizketa erdiegituratu. Elkarrizketak kolektiboak izan dira talde eragileak aldeztu aurretik identifikatutako informatzaile klabeekin, profil aniztasuna zainduz
Helburua:	eremuaren bilakaera ezagutu eta egungo egoera eta dinamika propioak era zuzenean identifikatzea erronka nabarmenenak islatuz eta tokiko behar nagusienak azaleratuz
Parte hartzea:	2 saio 4 pertsonekin
Data:	2025eko apirila-ekaina

Focus Group: Focus Group edo eztabaida talde gidatuak teknika kualitatiboak dira, non dinamizatzaile baten laguntzaz pertsona batzuk gai baten inguruko iritzia, bizipenak eta proposamenak elkarbanatzen dituzten. Helburua da ikuspegiak kontrastatzea, diskurtsoak azaleratzea eta ezagutza kolektiboa eraikitzea (Morgan, 1998). Eztabaidak ez dira galdeketa soilak, baizik eta elkarrizketa dinamikoak, non parte-hartzaileek elkarri eragiten dioten eta esperientzien arteko loturak sortzen diren.

Focus taldeak

Prozedura:	ordu bete pasatako talde-saioa, lan-prozesua kokatuz, jasotako aurreneko emaitzak partekatuz eta erronka eta gabezia nabariak seinalatzeko eztabaida-dinamika parte-hartzaileak garatuz
Helburua:	AuzoEkinen prozesuaren barnean garatu beharreko saio irekietako osagaiak mahaigaineratu eta ibilaldi gidatuetaarako "puntu beroak" identifikatzeaz gain, helburu nagusia, egunerokotasunean eremuan eragiten duten erronka nagusienak berraztertzea eta plazaratzea da
Parte hartzea:	5 bizilagun
Data:	2025eko ekaina-uztaila

Tailer irekiak: Tailer irekiak parte-hartze zuzenerako espazio ireki eta dinamikoak dira, non herritarrek gai jakin bati buruzko iritzia eta proposamenak modu antolatuan eta kolaboratiboan partekatzen dituzten. Askotan erabiltzen dira diagnostiko partekatuak egiteko edo lehentasunak zehazteko. Paulo Freire-ren pedagogia dialogikoan oinarrituta, tailer hauek herritarren ahalduntzea eta esperientzia partekatua sustatzen dute (Freire, 1970), erabaki-prozesuetan parte hartzeko prestakuntza gisa.

Saio irekiak

Prozedura:	ordu eta erdiko saio irekia, aurreneko informazio eta emaitzen azalpena aurkeztuz, ahulgune eta indarguneak finkatuz eta identifikatutako erronkak berraztertuz, gai-blokeka antolatutako hausnarketa lan-dinamika baten (gallery walk), puntukako leheneste ariketa baten (dot-voting), talde eztabaida kolektibo baten eta adostasunen zehaztapenerako plenario baten bidez.
Helburua:	eremuko erronka nagusien azpimarra egitea, hausnarketa ariketa baten ondoren adostasunetik eraikitako lehentasunak markatzera iristeko
Parte hartzea:	18 bizilagun
Data:	2025eko uztaila

Deribak (ibilaldi gidatuak): Deriba edo ibilaldi gidatua partehartze teknika bat da non herritarrek espazio baten erabilera, oztopoak eta beharrak bertatik bertara aztertzen dituzten. "Ibilaldi-diagnostiko" moduan ezagutzen dira ere, eta espazioaren eguneroko esperientziatik abiatzen dira. Michel de Certearen arabera (1984), "ibiltzea" ez da mugimendu fisiko hutsa, baizik eta espazio publikoaren esanahi soziala eraikitzeko jardura aktiboa da. Deribek bizilagunen begirada aktibatzen dute, arkitekturak eta hirigintzak komunitatean duen eragina ikusaraziz.

Ibilaldi gidatuak

Prozedura:	aldez aurretik prestatutako ibilbide bati jarraiki, gerturatutako bizilagunekin (deialdi irekia) taldekako ibilbideak, partaideek seinalatutako guneetan geldialdiak gauzatu eta garrantziaren arabera sailkatze bisual kolektiboak garatuz (leheneste mapak) eta bukaerako kontraste eta finkapen ariketa amankomuna eginez
Helburua:	norbanakoen ikuspegiak aintzat hartuz, kolektiboki garrantzia duten aspektuen lehenespena gauzatzea eremu bakoitzeko bizi-espazioaren hobekuntzarako osagai nagusiak azalaraziz
Parte hartzea:	15 bizilagun
Data:	2025eko uztaila-iraila

3. EREMUAREN AURKEZPENA

3.1. Biztanleria eta bizitokia

LERROBURUAK	
% 15	eko biztanleriaren gorakada azken hamarkadan
2,5	pertsona etxebizitza bakoitzeko
45	urteko batezbesteko adina
Adin-taldekako orekarako joera duen biztanleria piramidea	
Biztanleen % 8,5 ak kanpoko jatorria du (Latinoamerika eta Afrika nagusituz)	
Biztanleen %44 ak lanbide heziketa edo goragoko ikasketak ditu	
Etxebizitza huts potentzialen 1/3 murrizketa azken hamarkadan	
% 36,2	ko emantzipazio tasa

Bidebieta, Bizkaia, Ibarralde, Igeralde, Iparagirre, Izaskungo Andre Mari eta Kondeneako Aldapa kaleek osatzen dute eremua. Guztira 1.830 pertsona bizi dira, 742 etxebizitzatan banaturik. Hau da, 2,5 pertsona batez beste etxebizitza bakoitzeko. Kondeneako Aldapa da biztanle gehien dituen gunea eta Ibarralde kalea gutxien dituen. Ibarralde kalean dago etxebizitza bakoitzeko pertsona-kontzentrazioarik handiena, 2,9 pertsona batez beste.

Bilakaera demografikoari dagokionez, % 14,9 handitu da azken hamarkadan eremu horretan erroladatutako pertsonen kopurua eta % 16,1 egin du gora erroladatutako pertsonaren bat duten etxebizitzaren kopurua.

Etxebizitza kopurua, pertsona egoiliarak eta batez besteko pertsona kopurua etxebizitza bakoitzeko, auzoen arabera (2025)

Gunea	Populazioa	Etxebizitzak	Pertsonak, etxebizitza bakoitzeko
BIDEBIETA AUZOA	287	122	2,4
BIZKAIA KALEA	311	135	2,3
IBARRALDE KALEA	136	47	2,9
IGERALDE KALEA	204	86	2,4
IPARRAGIRRE AUZOA	318	118	2,7
IZASKUNGO ANDRE MARI	186	83	2,2
KONDENEAKO ALDAPA	388	151	2,6
GUZTIRA	1830	742	2,5

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Oro har, biztanleriaren banaketa nahiko orekatua da sexuari dagokionez: % 49,6 emakumezkoak dira eta % 50,4 gizonezkoak. Hala ere, gune batzuetan desberdintasunak egon dira. Kondeneako Aldapan, gizonen proportzioa % 54,9ra iristen da eta Bizkaia Kalean, aldiz, % 46,6koa da.

Pertsonen banaketa ehunekotan, sexuaren eta auzoen arabera (% Hor.) (2025)

	Emakumeak	Gizonak
BIDEBIETA AUZOA	50,5	49,5
BIZKAIA KALEA	53,4	46,6
IBARRALDE KALEA	47,8	52,2
IGERALDE KALEA	48,5	51,5
IPARRAGIRRE AUZOA	50,6	49,4
IZASKUNGO ANDRE MARI	52,2	47,8
KONDEANEKO ALDAPA	45,1	54,9
GUZTIRA	49,6	50,4

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Adinen arabera banaketari dagokionez, biztanleriaren banaketa nahiko parekidea da adin-tarte guztietan eta 35-44 urteko taldea da besteak baino handiagoa den bakarra, % 26,7rekin. Banaketa horren arabera, Bidebietako-Iparragirre-Izaskun eremuko herritarren batez besteko adina 45 urtekoa da. Ibarraldek biztanleria gazteagoa du, 15 urtetik beherako adingabeen ehuneko handiagoa du eta 38 urteko batez besteko adina.


Pertsonen banaketa ehunekotan, adin-tarteen eta auzoen arabera (% Hor.) (2025)

	<=15	16-24	25-34	35-54	55-64	65-74	>=75	Adina, batez beste
BIDEBIETA AUZOA	17,4	5,9	10,1	32,4	11,8	10,5	11,8	44,3
BIZKAIA KALEA	11,9	13,8	10,9	24,4	12,5	10,3	16,1	46
IBARRALDE KALEA	25,7	10,3	7,4	33,8	11,8	5,9	5,1	37,6
IGERALDE KALEA	15,2	8,3	8,3	22,1	11,3	18,6	16,2	49
IPARRAGIRRE AUZOA	15,4	9,7	7,9	24,2	13,8	16,4	12,6	46,2
IZASKUNGO ANDRE MARI	15,6	7,5	16,7	29,0	15,1	10,2	5,9	41,1
KONDEANEKO ALDAPA	12,6	10,3	11,1	25,0	12,6	12,1	16,2	46,3
GUZTIRA	15,2	9,6	10,4	26,7	12,7	12,4	13	45

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Egungo biztanleriaren banaketa eta 2015ekoa alderatuz, biztanleriaren gorakada orokorrarekin batera, adinaren arabera egituraren orekatzea eman da. Zehazki, biztanleriaren piramidearen oinarriak gora egin du, 15 urtetik beherako tartean batik bat, eta horrek esan nahi du gaztetze erlatiboa egon dela. Horrez gain, piramidearen goiko aldea lautu egin da, eta adinean gorago dauden taldeak murriztu egin dira modu proportzionalan.

Pertsonen banaketa ehunekotan, adin-tarteen eta auzoen arabera (% Hor.) (2015eko eta 2025eko errolda)



Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Bidebieta-Iparragirre-Izaskunen bizi diren herritarren % 8,5 baino ez da Estatu kanpokoa. Horrek esan nahi du ehuneko 3 puntu handitu dela kopuru hori 2015arekin alderatuta. Gehienak Latinoamerikakoak dira (% 4), gero Afrikakoak (% 2,5) eta Europakoak (% 1,5). Hala ere, atzerriko biztanleria gehiena gune batzuetan kontzentratzen da, batez ere Izaskungo Andre Marin (% 22) eta, bigarrenik, Bidebietan (% 13).

Pertsonen banaketa ehunekoetan, jatorriaren eta auzoen arabera (% Hor.) (2025)

	Estatua	Europa	Latinoamerika	Afrika	Beste batzuk
BIDEBIETA AUZOA	87,8	3,1	5,9	3,1	0,0
BIZKAIA KALEA	91,0	2,6	5,8	0,3	0,3
IBARRALDE KALEA	99,3	0,0	0,0	0,7	0,0
IGERALDE KALEA	99,5	0,5	0,0	0,0	0,0
IPARRAGIRRE AUZOA	94,7	1,3	2,8	1,3	0,0
IZASKUNGO ANDRE MARI	78,0	2,2	7,5	10,2	2,2
KONDEANEKO ALDAPA	91,8	1,0	1,5	2,8	2,8
Guztira	91,5	1,6	3,5	2,5	0,9

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Hezkuntza-mailari dagokionean, eremuan bizi den biztanleriaren % 55ak lehen edo bigarren mailako ikasketak ditu: % 33,1ek bigarren mailako ikasketak ditu eta % 22,3k lehen mailakoak. Bestalde, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa % 22,4koa da, eta lanbide heziketa duten pertsonena % 21,4koa. Horrek erakusten du banaketa nahiko orekatuta dagoela eremuan, pertsonen ikasketa-mailari dagokionean.


Pertsonen banaketa ehunekotan, ikasketa-mailaren eta auzoen arabera (% Hor.) (2025)

	Lehen mailakoak	Batxilergoa	LH	Goi Mailakoak	Ikasketarik gabe
BIDEBIETA AUZOA	27,6	24,1	15,9	30,6	1,7
BIZKAIA KALEA	20,5	24,3	16,4	38,8	0,0
IBARRALDE KALEA	15,3	23,5	38,8	22,4	0,0
IGERALDE KALEA	22,9	19,4	27,6	30,0	0,0
IPARRAGIRRE AUZOA	24,2	19,6	18,9	36,6	0,8
IZASKUNGO ANDRE MARI	22,7	22,1	14,3	39,0	1,9
KONDEANEKO ALDAPA	20,1	18,6	30,6	29,4	1,2
Guztira	22,3	33,1	21,4	22,4	0,8

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Eremuan izandako okupatutako etxebizitzaren gorakada ez da soilik izan eremu horretan etxebizitza berriak eraiki dituztelako (adibidez, Ibarralde okupatutako 2 etxebizitza izatetik 47 izatera igaro da, edota eraikin berrien sorrera dela eta), erroldatutako pertsonarik ez duten etxebizitzaren kopuruak ere % 33 egin baitu behera.

Eremuan, erroldatutako pertsonarik ez duten etxebizitzaren kopurua



Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Bizikidetza-unitateen osaketa xeheago aztertuz gero, agerian geratzen da gehienak pertsona batekoak edo bikoak direla, unitate guztien % 60, hain zuzen ere. Bestalde, etxebizitzaren % 33an 3 edo 4 pertsona bizi dira eta beste % 8an 4 kide baino gehiago.

Bizikidetza-unitateen banaketa ehunekotan, pertsona kopuruaren eta gunearen arabera (% hor.)


	Bat-bi	Hiru-lau	Bost edo gehiago
BIDEBIETA AUZOA	63,1	28,7	8,2
BIZKAIA KALEA	65,2	34,1	0,7
IBARRALDE KALEA	42,6	42,6	14,9
IGERALDE KALEA	67,4	25,6	7,0
IPARRAGIRRE AUZOA	51,7	38,1	10,2
IZASKUNGO ANDRE MARI	62,7	30,1	7,2
KONDEANEKO ALDAPA	57,0	33,8	9,3
Guztira	59,9	32,9	8,2

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Ibarralde eta Iparragirre gunek joera orokorretik urruntzen dira, hiru, lau edo pertsona gehiagoko bizikidetza-unitateen proportzioa handiagoa baita horietan. Ibarralderen kasuan, etxebizitza gutxiago daudelako izan daiteke. Zehazki, lau pertsona baino gehiagoko unitateak % 10 dira Ibarralden eta % 15 Iparragirren. Zifra horiek eremuko batezbestekoaren gainetik daude.

Gazteen emantzipazio aukera eta errealitateei begiratuz gero, eremuan bizi diren 18 eta 34 urte arteko 280 pertsonen artean % 36,2a dago emantzipaturik. 30-34 adin-taldekoen artean, pertsonen 2/3 emantzipatuta bizi dira jada. Era berean, 25-29 adin-taldekoen artean ere pertsonen 1/3 baino gehiago dago emantzipatuta.

Emantzipazio tasa ehunekotan, adin tartearen arabera (% ber.) (2025)



Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

4. EREMUKO AZTERKETA-DIAGNOSTIKOA

4.1. Ekonomia, enplegua eta establezimenduak


Enplegua

LERROBURUAK

- Biztanlego ez aktiboaren presentzia esanguratsua **%57**
- Langabezia tasa murrizta (**%5** baino gutxiago)
- Langabetuen **1/3** iraupen luzeko langabetuak dira
- Zerbitzuen sektorearen nagusitasuna (**%68**), industriaren pisu erlatibo esanguratsua izanik (**% 25**)
- Biztanleria landunaren **%80**ak enplegu mugagabea dauka, egonkortasuna islatuz
- Gehiengoak udalerrian edota eskualdean egiten du lan
- Kontziliazio neurrien baliatzea nahiko hedatuta dago landunen artean (**%56**)


Elkarrizketatutako biztanleriaren % 56,9 ez-aktiboa da, eta ikasleak eta erretiratuak dira batik bat, biztanleria ez-aktibo guztiaren % 86, hain zuzen ere. Horrez gain, adierazgarria da biztanleriaren % 4,8 soilik dagoela langabezian. Lanbideren datuek ere berresten dute hori; izan ere, datu horien arabera, eremu horretan bizi diren herritarrak udalerriko langabeen % 4,4 baino ez dira.

Pertsonen banaketa ehunekotan, jarduerarekin duten harremanaren arabera (% ber.)



Langabeen kolektibo guztitik, % 65,5ek urtebete baino gutxiago darama langabezian, % 27,8ak berriz, 2 urte edo gehiago daramatza lanik gabe.

Langabeen langabezia-denbora (hilabeteak) (% Ber.)




¹ Iturria: enplegu-eskatzaileen fitxa 2024ko urrian.

Biztanleria okupatuari erreparatuta, biztanleria osoaren % 38 dira eta gehienek, % 68k, zerbitzuen sektorean egiten du lan. Pisurik handiena duen bigarren sektorea industria da, okupatutako biztanleriaren %25ek egiten baitu lan sektore honetan. Bi sektoreen arteko aldea handia izanik eta enplegua zerbitzuen sektorean kontzentratzen bada ere, industriak ere badu zeresana.


- Zerbitzuen sektorean, sexuen arteko aldea argia da: gizonen %53k egiten du lan sektore horretan eta emakumeen kasuan %80ra iristen da zifra hori.
- Industria-sektorean ere, alde handiak daude sexuen artean: gizonen % 38,5ak jarduten du sektore horretan eta, emakumeen kasuan, %12,8k soilik.

Biztanleria okupatuaren banaketa, sexuaren eta jarduera-sektorearen arabera (% Ber.)




- Zerbitzuetako jarduera ekonomikoen barruan, osasungintza (%15) eta hezkuntza (%12) nabarmentzen dira, merkataritza eta zerbitzu-pertsonalen azpisektorea ere garrantzitsua izanik (%11).

Landunen banaketa, jarduera-adarraren arabera (% Ber.)




- Biztanleria langilearen % 69k sektore pribatuan egiten du lan, %27,5ek sektore publikoan eta okupatutako herritarren %3,6 soilik da autoenplegatuta.
- Enpleguaren banaketa orokorra sexuaren arabera bereiziz gero, emakume gehiagok egin ohi dute lan sektore publikoan (%32,5, eta gizonen kasuan, % 21,8).
- Aldiz, gizonen ehuneko handiagoa dago autoenplegatuta (% 6,1 vs. emakumeen, %1,4).
- Soldatapeko biztanleria % 96 da. Gehiengo zabalak (%80) kontratu mugagabea du. Landunen % 11k soilik du aldi baterako kontratua eta beste % 4k aldizkako kontratu finkoa.

Landunen banaketa, kontratazio motaren arabera (% Ber.)



- Eremuko biztanleria okupatuaren erdiak udalerrian edo eskualdean bertan egiten du lan. Emakumeen kasuan kopuru hori areagotu egiten da % 61era iritsiz.

Biztanleria okupatuaren banaketa, lantokiaren arabera (%Ber.)



- Biztanleriaren % 56k adierazi du kontziliazio-neurriren bat baliatzen duela. Gainera, kontziliazio neurriak erabiltzen dituztenen artean, % 35ak bi kontziliazio-neurri edo gehiago erabiltzen ditu aldi berean. Neurririk ohikoenen artean daude ordutegi malgua (landunen % 41,5ak) edota lanaldi murrizketak (landunen % 16ak).

Ekonomia

LERROBURUAK


Bizikidetza-unitateen $\frac{1}{4}$ ak hilabete bukaerara iristeko zailtasunak dituela aitortzen du

Diru-sarrera baxuek ezaugarritzen dute eremua

Pertsonen $\frac{1}{4}$ ak prestazioren bat jasotzen du


Bizilagunen $\frac{1}{4}$ ak (% 23,7) hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituela aitortzen du eta horietatik % 4,7k zailtasun handiak ditu. Bestalde, inkestatuen $\frac{1}{3}$ baino ez da iristen erraz hilabete amaierara.

Hilabete amaierara iristeko gaitasunaren banaketa ehunekotan. (% ber.)




Bizikidetza-unitatearen hilabeteko diru-sarreraren egoerak badu aurreko emaitzetan bere eragina. Adierazgarria da pertsonen % 43,7k, hilean, 1.950 eurotik beherako diru-sarrerak dituela. Kontrako aldean, kasuen % 14,7an hilabeteko 4.000€-ko diru-sarreraren langa gainditzen da.

Hileko diru-sarrera garbien banaketa ehunekotan (% ber.)



Prestazioen kasuan, biztanleriaren % 38k jasotzen du baten bat. Prestazio horietatik, gehienak (%69) erretiro-pentsioak dira. Etxebizitzarekin, hezkuntzarekin, zaintzekin eta mendekotasunarekin lotutako prestazio sozialak % 16,5 dira eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak (DSBE) edo Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrerak (BGDS) % 8,3.

Pertsonen banaketa jasotako prestazio edo/eta laguntza ekonomikoren arabera (% ber.)



Establezimenduak


LERROBURUAK

- Biztanlego ez aktiboaren presentzia esanguratsua **%57**
- Langabezia tasa murrizta (**%5** baino gutxiago)
- Langabetuen **1/3** iraupen luzeko langabetuak dira
- Zerbitzuen sektorearen nagusitasuna (**%68**), industriaren pisu erlatibo esanguratsua izanik (**% 25**)
- Biztanleria landunaren **%80**ak enplegu mugagabea dauka, egonkortasuna islatuz
- Gehiengoak udalerrian edota eskualdean egiten du lan
- Kontziliazio neurrien baliatzea nahiko hedatuta dago landunen artean (**%56**)

Bidebieta-Iparragirre-Izaskun eremuko establezimenduen kopurua nahiko egonkor mantendu da orohar, 2021 eta 2024 artean nabarmen egon bazen ere. Aldi hartan, eremu horretan 51 establezimendu aktibo egotetik 75 egotera igaro zen. Establezimendu gehienak komertzioak edo enpresa txikiak dira eta ez dituzte 2 langile baino gehiago.

Enpleguari dagokionez, Bidebieta-Iparragirre-Izaskunen 20 eta 50 langile artean dituzten lau establezimendu daude eta horiek dira eremuan enplegua sortzen duten enpresa nagusiak (Dabilen Harria az4 s.l., Eldugar Is s.l., Servicios Inteuskal s.l., Tolosako inmakulada ikastetxea koop.elk. s. coop.)


Eremuko establezimenduak eta enpleguak. 2015etik 2024ra bitarteko aldia



DIRAE iturria. Jarduera ekonomikoen direktorioa Eustat.

Jarduera-adarren arabera, establezimendu kopurua honela banatuta dago:

Establezimenduen banaketa jarduera-adarraren arabera 2024an




DRAE iturria. Jarduera ekonomikoen direktorioa Eustat

4.2. Etxebizitza

LERROBURUAK	
	Biztanleriaren $\frac{1}{4}$ ak 5 urte baino gutxiago daramatza eremuan bizitzen
	Diru-sarreren zati nabarmena bideratzen da etxebizitza gastuei aurre egitera
	Biztanleen erdia jabetzan duen etxebizitza batean bizi da
	Etxebizitzen egoera orokorra ona da, murrizta izanik eraberritze lanak eskatzen dituen parkea


Biztanleriaren % 27 inguruk 5 urte baino gutxiago daramatza Bidebieta-Iparragirre-Izaskun eremuan bizitzen. Biztanleriaren % 30ak 15 urte baino gehiago daramatza bertan bizitzen. Betidanik bertan bizi izan direnaren kopurua % 18koa da. Ostera, % 8k 2 urte baino gutxiago daramatza egungo etxebizitzan bizitzen.

Biztanleen banaketa ehunekotan, auzoan bizitzen daramaten denboraren arabera (% ber.)




Bizikidetza-unitateek, etxebizitzatik eratorritako gastuei (hipoteka, alokairua, gasa, argia, ura eta abar) aurre egiteko erabiltzen dituzten hilabeteko diru-sarreren proportzioa nahiko nabarmena da. Etxebizitza gastuei eskainitako aurrekontuak diru-sarren %30a gainditzen duenean partida horrek gehiegizko zama ekonomikoa dakarrela islatzen du. Bidebieta-Iparragirre-Izaskunen, 4/10 daude egoera horretan, nolabaiteko balizko estutasun ekonomikoak irudikatuz.

Bizikidetza-unitateen banaketa ehunekotan, etxebizitzara eta horniduretara bideratutako diru-sarreren ehunekoaren arabera (% ber.)



Biztanleriaren % 18a alokatutako etxebizitza batean bizi da. Jabegoari dagokionez, biztanleen % 28a hipoteka ordaintzen ari da. Bestalde, % 52k ordaindutako etxebizitza bat du dagoeneko jabetzan, izan norberak jada ordaindua edo herentziaz edo dohaintzan jasoa.

Etxebizitzaren banaketa, edukitze-erregimenaren arabera (% ber.)



Eremuko etxebizitzaren % 91,6 oso egoera onean daude egoiliarren arabera, eta % 8,4ek soilik adierazi dute eraberritze partzialak behar dituztela.


4.3. Ingurumena, hiri-espazioa eta garraioa- mugikortasuna

LERROBURUAK	
	Ingurune eta berdeguneekiko balorazio baikor orokortua (biztanleen % 65a konforme)
	Hiri-espazio osatzen duten elementuekiko iritzi kontrajarria (erdia gogobeteta eta erdia ez)
	Garraio eta mugikortasunarekiko ikuspegi oso ezkorra (biztanleen % 65a ez dago gustura)
	Oinezko desplazamenduen garrantzia nabarmena (lanerako eta ikasteko izan salbu)

Bidebieta-Iparragirreko-Izaskun eremuko biztanle elkarrizketatuek inguruneari eta inguruko berdeguneei buruz egiten duten balorazioa (lorategiak, zuhaiztiak, plazak eta parkeak, izurriteen kontrola, zaborren bilketa, etab.) nahiko positiboa da. Ietik 4rako eskalan (1a erabateko desadostasuna eta 4a erabateko gogobetetzea), eremu horretan bizi diren herritarren %65a gustura edo guztiz gustura dago eremuko ingurune eta berdeguneekin. Hala ere, biztanleen 1/3ak gabeziak antzematen ditu aldagai honekiko.


Hiri-espazioaren gaineko pertzepzioa berriz, erabat zatitua dago. Biztanleriaren erdia negatiboa da hiri-espazioa osatzen duten elementuekin, besteak beste, haurrentzako parkeekin, espaloiekin, irisgarritasunarekin, oinezkoentzako igarobideekin, hiri-altzariekin, kaleetako garbitasunarekin, estolderiarekin argiztapenarekin eta zaratekin. Beste erdiak, ordea, ikuspegi baikorragoa adierazten dute elementu hauekiko.

Azkenik, garraioari eta mugikortasunari dagokionez —trafikoaren egoera, aparkalekuak, garraio publikoa, etab.—, nahigabea orokorra da: % 65ek esan du ez dagoela konforme. Gainera, biztanleen ia 1/3a ez dago batere gogobeteta adierazle honi dagokionez. Horrek erakusten du egonezina bereziki handia dela arlo horretan.



Orokorrean, Bidebieta-Iparragirre-Izaskuneko bizilagunak oinez mugitzen dira beraien ohiko jarduerak burutzeko garaian. Dena den, jarduera motaren arabera nabarmenak dira aldeak. Hartara, harreman sozialetarako, aisialdirako, kirolerako eta kulturarako edo osasun-arreta jasotzeko bitarteko nagusia oinez joatea da, (kasuen % 85ean hau gertatzen da). Hala ere, lanera/ikastera joateko edo erosketak egiteko ibilgailu pribatuak garrantzia esanguratsua bereganatzen du (% 35 inguru). Azpimarratzeko da baita ere, lanera edo ikasketa zentroetara iristeko, garraio publikoa erabiltzen duten pertsonen kopurua (% 22).

Erabilitako garraibide nagusia, egindako jardueren arabera (% hor.)




4.4. Bizitza eta komunitate-bizikidetza

Euskararen erabilera

Inkestatutako pertsonetatik, % 53,8k adierazi du euskara erabiltzen duela gehienbat bere egunerokoa, erabilera zertxobait altuagoa izanik gizonezkoan artean. Bestalde, % 14,7k ez daki euskaraz. Emakumeen kasuan altuagoa da ehuneko hori, % 19,9.

Pertsonen banaketa, sexuaren eta euskararen gaineko ezagutzaren arabera (% ber.)



Osasuna, bizi-ohiturak eta zainketak

LERROBURUAK


Bizitzako alderdiei (osasuna, elikadura, ongizate emozionala) buruzko asebetetze maila altua

Genero arrakala zaintzari lotutako lanei dagokionez, emakumeen presentzia nagusituz

Etxeko lanak dira zaintzari lotutako lanik hedatuena, adingabekoen zaintzaren aurretik

Alderdi pertsonalagoei dagokienez, hala nola osasun-egoerari, bizi-ohiturei eta pertsonen ongizate emozional eta sozialari dagokienez, gogobetetze-maila ona adierazten dute eremuko bizilagunek. 1etik 4ra bitarteko eskalan, 3tik asebetetze-mailak azaleratuz.

Bizitzako alderdiei buruzko balorazioa (% Hor.)



Biztanleriaren % 15 inguruk esan du osasun egoera txarra edo oso txarra duela. Bestalde, % 30 ingururentzat bere osasuna oso ona da eta gainerako % 55entzat ona.

Elikadurari dagokionez, lau pertsonatik batek (% 25) uste du bere ohiko elikadura oso ona dela eta % 7k, berriz, txarra edo oso txarra dela.

Ongizate emozionalari eta gizarte-interakzioei buruz galdetuta, emaitzak antzekoak dira: biztanleen % 6ak soilik baloratzen ditu modu negatiboan, % 79k balorazio ona egiten dute, eta % 18k oso ona.


Aurreko atalekin bat etorriz, biztanleriak 4tik 3,1eko batezbesteko balorazioa eman dio bizitzarekiko duen asebetetze orokorrari. Ez da % 5era gutxiagatik iristen bizitzarekiko asebetetze-maila txarra edo oso txarra dioten biztanleen kopurua. Beraz, orokorrean, bizitzarekiko pertzepzio positiboa nagusitzen da.

Ez dago alderik emandako balorazioetan, ez sexuaren arabera, ez adin-tarteen arabera. Biztanleriaren gogobetetze pertsonala ona da baloratutako alderdi guztietan.

Zaintzaren arloari erreparatuz gero, biztanleriaren % 75,2k esan du denbora eskaintzen diela etxeko lanei. Talde horren barruan, % 43k adierazi du denbora dezente edo are gehiegi eskaintzen diela zeregin horiei.

Sexuen arteko aldea ere agerikoa da etxeko zereginak egiten ez dituztenen artean: gizonen % 29k esan du ez duela denborarik ematen halakoetan; emakumeen kasuan, % 21era murrizten da proportzio hori. Genero-arrakala handiagoa da zeregin horiei denbora gehiegi eskaintzen dietela uste dutenen artean: gizonen % 1ek soilik berretsi du hori; emakumeen kasuan ordea, % 9,6ra iristen da.

Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko jardueretan emandako denbora (% hor.)



Biztanleriaren % 26k zaintzen ditu adingabeak. Biztanleen % 16k dio ardurua handia duela adingabekoen zaintzan. Adinekoen zaintzaren kasuan, proportzioa apur bat txikiagoa da: biztanleriaren % 14k ematen du denbora horretan. Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenen kopurua, % 12 antzekoa da baita ere.

Etxeko zereginekin gertatzen den moduan, emakumeek denbora gehiago ematen dute zaintza-lanetan gizonek baino, bereziki adinekoen zaintzaren arloan. Izan ere, genero-desberdintasun handiak daude, baina ez etxeko zereginetakoak bezain markatuak. Emakumeek 2 eta 3 aldiz gehiago pentsatzen dute pertsonak zaintzeko denbora gehiegi ematen dutela.

Desberdintasun horiek agerikoagoak dira erantzukizun horietan "denbora gehiegi" ematen dutela adierazi dutenen kasuan.

Bizikidetza eta komunitatea

LERROBURUAK

Bizilagunen parte-hartze maila eskasa eremuko ekimen kolektiboetan


Auzo izaera nahiko errotua, auzoarekiko atxikimendu altua erakutsiz (**2/3**ek sentimendu handia)

Eremuko giro-sozialaren balorazio erabat baikorra (**3/4** giroa ona edo oso ona)

Eremuarekiko gogobetetze maila orokor positiboa


Eremu horretako biztanleek parte-hartze maila urria erakusten dute auzoko ekimenetan: halako jardueretan parte hartzen dutenen kopurua ez da hamarretik batera ere iristen. Ez dago desberdintasunik sexuaren arabera. Horrek esan nahi du, parte-hartzea txikia dela bai gizonen zein emakumeen artean.

Elkarteetan eta auzoko ekimenetan parte hartzea ala ez, sexuaren arabera (% Ber.)




Eremuari begira burututako ekimenetan adierazitako parte-hartzea eskasa bada ere, auzoaren parte izatearen sentimendua nahiko hedatua dago, baita eremu horretan denbora gutxien daramaten bizilagunen artean ere. Guztira, biztanleriaren % 66k esan du parte izatearen sentimendu handia duela eta % 10ek soilik adierazi du ez duela inolako loturarik edo lotura txikia duela auzoarekin.

Eremukoa izatearen sentimendua (%Ber.)




Eremuarekiko atxikimendu maila esanguratsuak eta horri lotutako komunitate-sentimenduak eragin positiboa du auzoko giro sozialaren gainean egiten duten balorazioan: biztanleriaren % 63k esan du ona dela eta % 16k oso ona dela.

Eremuko giro sozialaren eta bizikidetzaren balorazioa (% Ber.)



Oro har, eremuarekiko gogobetetze maila nahiko egokia dela baieztatu daiteke. Biztanleriaren % 57 nahiko asebeteta dago eta % 4 guztiz asebeteta. Kontrara, soilik % 17k adierazi du ez dagoela oso asebeteta edo batere asebeteta auzoaren egoerarekiko.

Eremuaren egoera orokorrarekiko gogobetetasuna (% Ber.)



4.5. Gobernantza eta zerbitzuak

LERROBURUAK	
	Eremuko oinarrizko zerbitzu, produktu, eta ekipamenduekiko balorazio ezkorra
	Eremuak, adin-talde desberdinetako pertsonentzat eskaintzen dituen aukerekiko asebetetzea
	Adin-nagusikoentzako aukerekiko iritzi ezkorra, salbuespen gisa
	Gobernantzari lotutako adierazleekiko ikuspegi kontrajarriak
	Udal teknikarien eta ordezkari politikoen lanaren balorazio baikorra
	Bizilagunekiko komunikazioaren eta iradokizun eta jakinarazpenekiko erantzunen balorazio ezkorra


Eremuko zerbitzu eta ekipamendu publikoekiko eskuragarritasun eta egoerari lotutako hainbat aldagaiei buruzko iritziaz galdetuta, bizilagunek nahigabea adierazten dute, nagusiki.

Eremuko ekipamendu kolektiboen —hala nola frontoia, eliza, elkarte, etab.— egoeraren gaineko balorazioaren kasuan, herritarrek nahigabe nabarmena adierazi dute, biztanleen % 81a ez baitago konforme. Gainera, horien erdiak adierazi du ez dagoela batere asebeteta ekipamenduekin. % 19k baino ez ditu modu positiboan baloratu ekipamenduak. Orotara, biztanleek 1,8ko batezbesteko puntuazioa eman diote eremuko ekipamendu kolektiboekiko asebetetzeari.

Oinarrizko produktuak eskuratzeko eremuak eskaintzen dituen aukeren gaineko balorazioa ez da asebetegarria. % 79ak dio ez dagoela asebeteta egungo egoerarekin. Are gehiago, biztanleriaren erdia baino gehiagok (% 56) esan du ez dagoela batere asebeteta. Orotara, biztanleek 1,7ko batezbesteko puntuazioa eman diote eremuko oinarrizko produktuen eskuragarritasunarekiko asebetetzeari.


Ezinbesteko zerbitzuen eskuragarritasunari dagokionez, biztanleen % 57k esan du ez dagoela konforme. Orotara, biztanleek 2,3ko batezbesteko puntuazioa eman diote eremuko oinarrizko zerbitzuen eskuragarritasunarekiko asebetetzeari.

Asebetetze-maila eremuak eskaintzen dituen aukerekiko, jardueren arabera (% Ber.)



Eremuak hainbat kolektiborentzat eskaintzen dituzten aukeretan pentsatuta, hala nola adinekoentzat, helduentzat, gazteentzat, adingabeentzat zein haurtxoentzat, balorazio gehienak positiboak dira, 75 urtetik gorako adinekoen kolektiboaren kasuan izan ezik. Talde horretan, % 29k adierazi du ez dagoela oso asebeteta eta % 41ek esan du ez dagoela batere asebeteta. Horrek erakusten du pertzepzio negatiboa dutela inguruneak biztanleria-segmentu horrentzat eskaintzen dituen aukerekiko.

Eremuak eskaintzen dituen aukerei buruzko gogobetetzearen balorazioa, pertsonen kolektiboen arabera (% Hor.)




Tolosako Udalaren eta eremuaren arteko harremanen balorazioari dagokionez — komunikazioari, kudeaketak bideratzeko erraztasunari eta gai administratiboen tramitazioari, udaleko langileen aldetik jasotako tratuari, lortutako erantzunei edo alkatearen eta beste ordezkari politikoen rolari dagokionez—, herritarrek pertzepzio zatitua dute: gogobetetzea eta nahigabea modu parekidean banatzen dira ia.

Tolosako Udaleko langileek emandako tratua da ondoen baloratzen den alderdia; 2,8ko batezbestekoa 1etik 4rako eskalan. Izan ere, biztanleriaren % 78ak 3tik gorako asebetetze-puntuazioa eman dio. Horrekin batera, kargu politikoak dituzten pertsonen lanak (2,6) eta izapidetzak eta gestioak egiteko erraztasuna (2,5) ere nahiko ondo baloratuak izan dira.

Bestalde, asebetetze-mailarik txikiena duten alderdiak, bizilagunekiko komunikazioa (2,3ko batezbesteko balorazioa) eta kexa, iradokizun eta jakinarazpenei emandako erantzuna (2,4) dira. Hurrenez hurren, % 17ko eta % 11ko erabateko desadostasun mailak erregistratzen dituzte bi adierazle hauek.

Eremuko biztanleen gogobetetzea, Tolosako Udalarekin egindako jardueren arabera. (% hor.)



5. DATU KUALITATIBOAK

5.1. Elkarrizketa sakonak

- Zabalarreta parkea da “auzoaren birikia” edo elementu egituratzailea. Espazio honi duen potentzialtasun guztia ateratzea da gakoa, kalea bizi eremu bilakatuz.
- Zonaldearen sorrera eta historiari (auzoaren aldeko ekintzailtza) garrantzia emateko beharra azpimarratzen da, eremuarekiko atxikimendua estutzeko.
- Eremuak bere baitan ezaugarri desberdinak dituzten hainbat gune desberdin batzen ditu garapen urbanistiko organiko baten emaitza.
- Kalea jada ez da elkargune eta aisialdi jarduerak ez dira auzoan burutzen.
- Garai bateko auzo elkarte desberdinak itzali ziren. Orain Bidebietan berpiztu da. Dena den, ez dago eremua batu eta dinamizatzen duen eragilerik.
- Jada gune desberdinetako jairik ere ez da antolatzen. Behar bada era bateratuan bakarra antolatu daiteke auzo guztirako.
- AuzoEkin jendearen arteko saretzea sustatu eta auzogintzari berrekiteko baliatu beharko litzateke, bereziki, gazteen aktibazio eta inplikazioan sakonduz. Auzo-dinamika aktibatzaile bat abiatzea ezinbestekoa da.
- Auzo mailako batasuna ezinbestekoa da baita ere Udalarekiko interlokuzio eraginkor bat gauzatzeko.
- Zabalarretako tabernak ere bizilagunen elkartze-gune funtzioa betetzen du.
- Irisgarritasuna tratatu beharreko gai nagusietako bat da. Barne konektibitatea eta Berazubi aldera iristeko aukerak hobetuz. Era berean eremuko guneren batean (“Carmen”) irisgarritasun oztopo espezifikoak ere badira.
- Bere garaian egitasmoa bat zegoen Udalaren eta heziketa zentroaren artean auzotarrentzako (adinekoak, etab.) laguntza sistema bat abiatzeko bizilagunen partaidetzarekin. Horrelako auzo-aktibazio ideak interesgarriak izan daitezke.
- Eremuan badira erabilera gabeko lokal publikoak, ahal den heinean aktibatu ahalko liratekeenak, espazioari bizitasuna emateko.
- Bestelako hobekuntza beharrak ere badira (komun publikoen irekiera, gaueko argiztapena, aparkalekuak, lgeraldeko eraikinen ordenazioa...).

5.2. Talde eragileen sorrera

Saioa Udal teknikariarekin hasi zen, AuzoEkin prozesuaren helburu nagusiak gogoraraziz. Bere esanetan, helburua da auzoetako errealitatea eta beharrak hobeto ezagutzea eta horien gainean garapen komunitariorako estrategia partekatu bat eraikitzea. Gaur egungo fasea partaidetza bidezko diagnostikoa egitekoa da, eta horren ostean, lortutako emaitzak aztertzea eta ekintza-plan proposamenak egitea etorriko dira. Sarrerako azalpenaren ondoren, dinamizatzailerak hartu zuten hitza eta saioa garatzeko dinamika proposatu zuten.

Auzoa eta Konpromisoa ulertzeko lehen galderak

Lehen dinamikan parte-hartzaileek aurkezpena egin zuten eta auzoaren definizio pertsonalak partekatu zituzten. San Esteban auzoari buruzko ikuspegi desberdinak agertu ziren: Iparragirre inguruko bizilagunek "zona berdea", "langile auzoa" eta "lasaitasuna" nabarmendu zuten, baina baita "irisgarritasun faltaren" kezka ere. Igaralde ingurukoek auzoa "kaotikoa eta abandonatua" bezala deskribatu zuten, eta irisgarritasun arazoak azpimarratu zituzten. Izaskunetik "abandonatua" bezala definitu zen, eta Sputnik ingurukoek auzoa "deskonexionatuta" dagoela adierazi zuten.

Bigarren galderan, auzoarekin duten konpromisoaren inguruan hausnartu zuten. Parte-hartzaileek naturguneak zaintzeko borondatea, bertan bizitzen jarraitzeko nahia eta irisgarritasuna hobetzeko beharra aipatu zituzten. Halaber, batzuek egindako esfortzuaren aurrean erantzunik jaso ez dutela adierazi zuten arren, lanean jarraitzeko asmoa agertu zuten. Beste batzuek, aldiz, oraindik konpromiso txikia dutela onartu zuten, baina handitzeko prest daudela esan zuten. Azkenik, auzokoek parte-hartzeak eta auzokidetasunak ematen dien "partaidetza eta identitate sentimendua" nabarmendu zuten.

Talde eta Eragileen Identifikazioa

Bigarren dinamikan, parte-hartzaileek beren auzoan ezagunak dituzten talde, eragile eta kolektibo ezberdinak identifikatu zituzten. Ehun sozialari dagokionez, ondorengoak atera ziren: Arsenal Sociedad Gastronómica, Izaskun Elkarte, TOBIDE, Otsabio Gaztetxea, EMENDEK Elkarte, Bidebietako bizilagunen elkarte eta Grupo de Baile Udaberri. Ehun instituzionalaren barruan berriz, honako hauek aipatu ziren: Subestazio elektrikoa, Herrikide, Laskorain Ikastola, Inmaculada Ikastetxea, EPA, Agintzari Elkarte, Gainberri Lanbide Heziketa, Kuartela, Nahia Harreta Goiztiarra, Hirukide eta Tanatorioa. Azkenik, ehun ekonomikoari dagokionez, farmaziak, tabernak, ile-apaindegia, fisioterapia eta psikologia zentroak, hizkuntza akademiak, arkitektura estudioa, yoga eskola eta bestelako komertzio txiki ugari identifikatu zituzten.

Eragileen Inplikazioaren Mailakatzea

Hirugarren dinamikan, aurretik identifikatutako talde eta eragileak beren inplikazio mailaren arabera sailkatu zituzten. Inplikazio handiko eragileen artean daude Inmaculada Ikastola, Bidebietako auzo elkarte, TOBIDE eta Iturri Taberna. Inplikazio ertainean kokatu ziren beste hainbat ikastetxe, gastronomia elkarte, komertzio eta zerbitzu enpresa txiki. Inplikazio txikiko gisa, berriz, ehun instituzional eta ekonomiko zabalago bateko eragileak azaldu ziren, hala nola, osasun arloko zerbitzuak, yoga eta arkitektura estudioak, baita hainbat udal azpiegitura ere.

■ Indargune eta Mehatxuen Azterketa

Laugarren dinamikan, auzoko indarguneak eta mehatxuak identifikatu zituzten. Mehatxu edo korapilo gisa, ondorengoak azpimarratu zituzten: auzokidetasun sentimendu eskasa, supermerkatu faltak, Berazubirekiko eta Tolosa erdiguneko irisgarritasun urria, jai falta, Hirukidera igotzeko trafiko handia, Zabalarretako parkeko argiztapen eskasa, oinezkoentzako espaloien erabilera desegokia, espazio estali falta, herritarren parte-hartze eskasa, janari dendaren gabezia eta eskolen inplikazio urria. Gau giroa eta arkitektura oztopoak ere aipatu ziren.

Indargune gisa, berriz, auzo elkarteen existentzia, Agaramunduko igogailua, Zabalarretako parkea eta auzokideen inplikazioa nabarmendu ziren. WhatsApp taldeak informazioa partekatzeko bide egoki gisa baloratu zituzten, eta Izaskunen eta Bidebieten bizikidetza ona eta komunitate giroa azpimarratu zen. Proposamen zehatzak ere egin ziren, besteak beste: tanatorioaren aurrean argiztapena hobetzea, Zabalarretan karga eta deskarga gunea sortzea, Berazubiko eskaileren gainean zebrabide bat jartzea, festak berreskuratzea, komertzioa bultzatzea, bizikleta aparkalekuak jartzea, Bidebietako elkartea handitzea eta frontoia estaltzea.

■ Parte-hartze espazio eta kanalak

Bosgarren dinamikan, parte-hartzerako eta komunikaziorako espazio eta kanalak identifikatu zituzten. Informazioa partekatzeko, portaletako kartelak eta eskutitzak, auzoaren WhatsApp talde ugari eta sarrera nagusian dagoen iragarki-taula erabiltzen dituzte. Parte-hartze espazio gisa, Inmaculada ikastetxea, Izaskungo auzo-bilerak, portal bilerak eta Bidebieta elkarteko bilerak aipatu zituzten. Halaber, taberna eta ogi-denda bezalako gune sozialak ere parte-hartze informaleko gune gisa baloratu ziren. Aurkeztu zen dokumentazio historikoa ere oso aberatsa da, auzoaren historia jasotzen duten idatzi eta mobilizazioen bidez: adibidez, Zabalarreta parkearen aldeko mobilizazioak, subestazioari buruzko idazkiak edo semaforo eta zebrabideen inguruko proposamen zehatzak.

■ Azken hausnarketa

Azken dinamikan, parte-hartzaileek galdera ireki batzuk erantzun zituzten: zergatik parte hartu nahi duten, zer itxaropen dituzten eta zer ekar dezaketen. Ekarken hauek debate bilakatu ziren, eta eztabaidaren ardatza izan zen begirada komunitarioago bat behar dela, auzoen artean elkar-ulertzea eta lankidetzaren sustatzea. Parte-hartzaileek adierazi zuten Bidebietako auzo elkartea irekia dagoela beste auzoak integratzeko, eta auzo ikuspegitik harago, elkarlan eta komunitate ikuspegia bultzatu behar dela. Era berean, prozesuak motelegiak direla salatu zuten, eta herritarrek kexak eta proposamenak bideratzeko kanal zuzen eta eraginkorrek behar dituztela azpimarratu zuten. Azken finean, Udalarekin elkarlana eta auzoen arteko indarrak batzea ezinbestekotzat jo zuten.

■ Elkarrizketa sakonetarako hautagaiak

Saioa amaitzeko, elkarrizketa sakonetarako hautagai posibleak proposatu ziren. Helburua da auzoaren ikuspuntu desberdinak jasotzea eta prozesuaren aniztasuna berrmatzea.

5.3. Talde elkarrizketa

■ Ingurumena, historia eta kultura

Saioan nabarmendu zen auzoaren historia balioan jartzeko beharra, bereziki auzoaren sorrera eta bertako ekintzailtza soziala azpimarratuz. Hasiera batean, Bidebarrieta baserriaren inguruan bizi zen auzoa, eta bertan bizi zen ezkontza batek barazkiak saltzen zituen. Halaber, denda txiki bat, Dionisioren taberna, eta Zabalarretan jauregi bat egon ziren, auzoari bizia ematen ziotenak. Iparragirrenen gaur egungo etxebizitzak lehen baserriak ziren, eta pixkanaka, landa-eremu hori urbanizatzen joan zen, Tolosako kanpoalde bihurtzeraino. Gaur egun, auzoan kanpotik etorritako jende asko bizi da.

Garapenaren aldetik, lehen Izaskun eraiki zen, gero Bidebieta eta azkenik Iparragirre. Partaide batek adierazi zuen 25 urte lehenago etorri zela, eta garai hartan Izaskungo etxeak langileentzat eginak zirela. Auzoan mobilizazioak egon ziren etxe gehiago ez egiteko. Izaskun 1953. urterako bazegoen, eta ondoren etorri zen Bidebieta.

Zabalarretako parkea izendatu zuten auzoaren “birika” eta elementu egituratzaile gisa. Parkeak potentzialtasun handia du, kalea bizitzeko eremu bihurtzeko aukerarekin. Gune estrategikoan kokatuta dagoenez, auzo guztietako jendea biltzeko toki egokia izan liteke. Hala ere, gaur egun gutxi erabiltzen da, eta egoera utzian dago. Zuhaitz batzuk usteltzen ari dira, belardiak zikinduta daude eta umeentzako espazio egokiak falta dira. Espazioa berreskuratzeko proposamenak atera ziren: bankuak jarri, lorategi bat sortu, edo aurreko parkea lehengoratu.

Auzoko festak ere gainbeheran daude. Lehen, elkartearen bidez jaiak eta bestelako ekintzak antolatzen ziren. Gaur egun, udako zinema baino ez da egiten frontoian, nahiz eta futbol-zelaia eta plaza bezalako espazio aproposak izan. Astean behin auzo bakoitzean jarduera bat egitea proposatu zen, auzotarrak erakartzeko eta dinamika pizteko.

Bidebieta auzo txikia izan arren, jende berria eta gaztea bizitzen hasi da, eta horren ondorioz jai batzorde bat sortu zen. Hasieran Gau Beltza ospatzen hasi ziren, eta pixkanaka jaiak antolatu zituzten. Helduek ere bazkariak antolatzen dituzte. Hurrengo urterako, udaletxearekin harreman handiagoa izatea da asmoa, auzo guztiek jaietan parte hartzeko aukera izan dezaten.

■ Mugikortasuna, hirigintza, azpiegiturak, energia eta etxebizitza

Irisgarritasun eta barne-konektibitate arazo nabarmenak aipatu ziren. Bereziki Zabalarretako semaforo inguruan autoek elkarren aurka gurutzatzen dutela esan zen. Auzoen arteko loturak ere eskasak dira, Izaskunera doan bidea estua eta deserosoa baita. Goizetan autobusek zailtasunak dituzte bertatik pasatzeko, autoek bidea oztopatzen baitute.

Zebrabideen egoera txarra da: zuloak daude, baldosa batzuk falta dira, eta espaloiek ez dute baldintza egokirik. Irisgarritasun zailtasun horiek bereziki adineko pertsonentzat dira oztopo handiak, batez ere Tolosaldera jaisteko. Sakramentinoetako eskailerak aldapatsuak dira, eta ez dago ibai aldera segurtasunez jaisteko modurik. Proposatu zen ranpa mekanikoak edo igogailuak jartzea, ingurumenarekiko begirunea mantenduta.

Auzoak ez dauka eguneroko erosketak egiteko saltokirik, okindegi bat izan ezik. Zerbitzu falta horrek jende asko beheko auzoetara joatera bultzatzen du. Komertzio txikien beharra azpimarratu zen.

Etxebizitzari dagokionez, prezioen arazoa ez da auzo honetakoa soilik, Tolosako arazo orokorra dela adierazi zen. Auzoa bizitzeko egokia dela diote, baina prezio altuek gazteentzat oztopo dira. Etxebizitza huts gutxi dago, eta merkatuan agertzen direnak garestiak dira. Adibidez, lehen 130.000 eurotan saltzen ziren etxeak, gaur egun 220.000 eurora igo dira. Alokairu eskaintza oso eskasa da, eta daudenak berehala hartzen dira.

Zabalarretako eta Garamunduko etxebizitzak garestienak dira, eta Izaskun plazakoak txikiak, merkeak eta zaharrenak. Halaber, zenbait eremutan eskailerak oso aldapatsuak dira, eta horrek arrisku handia sortzen du, konponbide bat bilatu beharra nabarmenduz.

Biztanleria, parte-hartzea eta bizikidetzak

Parte-hartze kolektibo urria eta auzo-atxikimendu falta nabarmendu ziren. Kalea jada ez da topalekua, eta ez dira aisialdi-jarduerak antolatzen auzoan. Lehen, gazteak Izaskungo plazan elkartzen ziren, baina gaur egun ez dago belaunaldi berrientzako espaziorik.

Ez dira ekintzak antolatzen ez gazteentzat, ez helduentzat, ezta umeentzat ere. Elkarrekin duten antolaketa-falta eragiten du auzoko dinamika moteldu izana. Ez dago udalarekin edo beste eragileekin lotzen duen egiturarik. Askok beste auzoetara jotzen dute —adibidez Lazkorainera—, jarduerarik ez dagoelako hemen.

Antzina auzo-elkarrekin jarduera asko antolatzen zituzten, eta horrek elkarbizitza eta harremanak sendotzen zituen. Orain, elkarrekin desagertu dira edo indarra galdu dute. Bidebietetan, azken urteetan berpiztu da dinamika, baina oraindik ez dago dinamizatzaile argirik.

Auzo mailako batasun falta nabarmendu da. Udalarekiko harreman eraginkorrak izateko, auzoaren izenean hitz egin dezakeen egitura bat behar da. Gainera, udalaren eta hezkuntza-zentroen arteko elkarlanak erabilgarriak izan daitezke adinekoentzat edo kolektibo berezientzat.

Lokalei dagokienez, erabilerarik gabeko espazio publikoak aipatu ziren, bizitza soziala pizteko aukera dutenak. “Utzabi” edo “Otzabi” izenez ezagutzen den lokal bat, berez udalarena dena, guztiz utzita dago gaur egun. Urik eta argirik gabe, erabilerarik ez du eta kudeaketarik ere ez. Lokala berriro irekitzea eskatu zaio udalari, baina ez da erantzunik jaso.

Lokal hori elkarbizitzarako espazio bihurtu liteke: tailerrak, topaketak, bilkurak egiteko leku malgua. Gaur egun, halako espaziorik ez dago. Euria egiten duenean, ez dago umeekin edo helduekin elkartzeko aterperik. Igande batean 40 ume elkartu ziren, eta galdera nagusia izan zen: non sartzen dira?

Goiko aldeko plazetan ez dago iturrik, ez azpiegitura egokirik, eta parke bat kendu zen istiluen ondoren. Orain plaza hutsik dago, eta espazioa egokitu beharra dago, adin guztientzako baliagarria izan dadin.

Ekipamenduak, zerbitzuak, ekonomia eta kontsumoa

Eremuan ez dago oinarrizko erosketak egiteko aukerarik, eta horrek eguneroko bizitza zailtzen du. Lokalak badaude, baina erabilera gabe daude. Horiek aktibatzea proposatu zen, espazioari bizitasuna emateko.

Komun publikoen erabilera eta irisgarritasuna ere aipatu ziren. Egunez erabilgarriak izan beharko lukete, eta ez dago ulertzerik zortzietarako itxi behar izatea. Ez da argi zein egoeratan dauden gaur egun, baina sarritan ez dago informazio argirik, ez eta erabilera bermatzen duen sistemarik ere.

Iluntasuna eta segurtasun falta da beste arazoetako bat. Zabalarretako hainbat gunetan argirik ez dago, eta horrek ezinegona eta beldurra sortzen ditu. Trapitxeoak agerikoak dira, eta Ertzaintza ia egunero ibiltzen da inguruan. Jendea bertan lasai erretzen eta edaten ikusten da, eta horrek ez du espazio publiko eta seguru baten sentsazioa ematen.

Parkearen mantentzea hobetu beharra dago: zuhaitz batzuk historikoak dira, baina zaindu behar dira. Argitasuna eta segurtasuna hobetzeko, adarrak moztu eta argi gehiago jarri beharko lirateke. Azkenaldian egindako hobekuntza batzuk, hala nola rampa berri bat, bide oneko pauso gisa baloratu ziren. Horrelako ekimenak sustatu behar dira, parke bizigarriago bat lortzeko.

Integrazioa

Integrazioari buruzko aipamen gutxi egin ziren. Hala ere, parte-hartzaileetako batek esan zuen bere ustez auzoan, haur eta guraso mailan, integratuta daudela, eta Amarotz auzoa adibide moduan jarri zuen, giro familiarra duen auzo gisa.

5.4. Tailer irekiak

Lehenengo dinamikan, parte-hartzaileek bloke bakoitzeko proposamenak baloratu zituzten pegatinak erabiliz, lehentasunak adierazteko: pegatina berdea (●) lehentasun handia adierazteko eta gorria (●) lehentasun txikiagoa adierazteko.

- **Ingurumena, paisaia, historia eta kultura:** Zabalarreta parkea auzoko "birikia" eta elementu egituratzaile gisa baloratu zen (9 puntu, ●). Bestalde, zonaldearen historiari balioa ematea (4 puntu, ●) eta auzoko jaiak berreskuratzea (3 puntu, ●) aipatu ziren.
- **Etxebizitza eta hirigintza:** Aparkalekuak eta egoiliarrentzako espazioak lehentasunezko gai gisa nabarmendu ziren (8 puntu, ●).
- **Mugikortasuna, azpiegiturak eta energia:** Irisgarritasun eta konexio arazoak (7 puntu, ●), trafiko arazoak eta espaloien erabilera (6 puntu, ●), eta espazio estali komunitarioen gabezia (3 puntu, ●) azpimarratu ziren.
- **Biztanleria, parte-hartzea eta bizikidetza:** Udalaren eta hezkuntza-zentroen laguntzaren beharra (3 puntu, ●), parte-hartze eskasa (3 puntu, ●) eta kulturartekotasunaren erronkak (3 puntu, ●) aipatu ziren.
- **Ekipamenduak eta zerbitzuak:** Lokal publikoen erabilera eza (6 puntu, ●), negurako estalkien falta (5 puntu, ●) eta komun publikoen gabezia (4 puntu, ●) azpimarratu ziren.
- **Ekonomia eta kontsumoa:** Auzoan komertziorik ez egotea izan zen puntuaziorik altuena jaso zuen gaia (14 puntu, ●), lehentasun argia adieraziz.

2. dinamikan, plenarioan, hiru mahaikidetan banatutako eztabaidetan eta hausnarketa kolektiboetan hainbat gai azaleratu ziren, ondoren partekatuta.

MAHAIA 1:

Parte-hartzaileek espazio estali komun baten beharra azpimarratu zuten. Auzoko jaiak berreskuratzea, Otsadi lokalari erabilera handiagoa ematea eta espaloi okupazioak arautzea (bereziki kotxeen aparkalekuei dagokienez) aipatu ziren. Aparkaleku eremuak egoiliarrei eskaini beharko liratekeela azpimarratu zen. Komertzioaren gabezia, Iberdrolaren transformazio-zentroaren egoera txarra eta herrigunera irisgarritasun arazoak ere nabarmendu ziren. Araudia betearazteko zaintza handiagoa eskatu zen, bereziki bizikidetza arazoei dagokienez (zarata, kontzertuak, etab.).

MAHAIA 2:

Irigarritasuna, espaloien erabilera eta oinezkoentzako espazioa berreskuratzeko premia aipatu zen. Zabalarreta parkearen garrantzia berretsi zen eta haren hobekuntza (argiztapena, mantenua...) proposatu zen. Elkarte bat sortzea eta horretarako espazio egokia (Otsadi edo Igaraldeko lokala) eskuratzeko planteatu zen. Komertzio txikia (adibidez, "Todo Todo") eta bertako bizilagunentzako eskaintza garatzeko beharra aipatu zen. Segurtasunari dagokionez, zuhaitzen inausketaren premia azpimarratu zen. Berazubi zubiaren inguruan irigarritasuna hobetu behar dela nabarmendu zen.

MAHAIA 3:

Zabalarreta parkea arnasmune gisa ikusi zen eta bere egoera hobetu beharra azpimarratu zen (argiztapena, komunak, zuhaitzak, etab.). Parkeek haur adin desberdinetara egokituta egon behar dutela planteatu zen. Tolosara jaisteko irigarritasun arazoak errepikatu ziren (espaloia, gurutzebideak, aparkalekuak). Espazio estalien beharra nabarmendu zen: karpa, lokal itxia edo ludoteka, adin desberdinetarako erabilgarria izan dadin. Komertzioa eta irigarritasuna lotuta daudela azaldu zen, eta Tolosako kale nagusiko laguntza publikoen eredia hona ekartzea proposatu zen.

Hausnarketak eta erronkak

Eztabaidetan zehar egindako hausnarketa ugarik auzoaren erronka nagusiak azaleratu zituzten:

1.

Zabalarreta parkea: Arnasmune gisa zaindu behar da, argiztapena, komunak eta oinarritzko egokitzapenekin. Ez da egitura handirik nahi, baina bai ekintza puntualak egiteko erabilera: antzerkia, artisautza azoka, kontzertu txikiak... kultura espazio bihurtzeko aukerarekin.

2.

Komertzioak: Bertako kontsumoa bultzatu behar da eta udalaren laguntza publikoa ezinbestekoa da: alokairu-laguntzak, pizgarriak eta alternatiba berriak (furgoneta, merkatu txikiak...). Komertzioa zerbitzu gisa ulertu behar da, ez soilik irabazi-iturri gisa.

3.

Auzoa bateragune gisa: Erreferentziazko gunek komun bat behar da, elkarrekin eta jarduerak sustatzeko. Lokalen erabilera berrikusi behar da eta azpiegitura egokia sortu.

4.

Irigarritasuna eta segurtasuna: Berazubi eta Dama Verde zubien artean beste zubi bat proposatu da. Espaloien erabilera, oinezkoentzako espazioa eta argiztapena hobetu behar dira. Udaltzainen presentzia eta jardura indartu beharra ere aipatu da.

5.5. Ibilbide gidatuak (Deribak)

1

Hasiera: Inmakulada Ikastetxearen atzeko zebrabidea

1.- Errepidea eta espaloia arteko altuera handia da auzo guztian zehar. Zebrabideak dauden lekuetan kota 0-ra jaitea eskatzen da. Beste alternatiba zebrabideak espaloia altuerara igotzea da, erreduktore efektua ere lortu dadin.



2.- Errepidea eta espaloia arteko altuera handia da auzo guztian zehar. Zebrabideak dauden lekuetan kota 0-ra jaitea eskatzen da. Beste alternatiba zebrabideak espaloia altuerara igotzea da, erreduktore efektua ere lortu dadin.

3.- Tanatorioa doan errepidean espaloia txikitu eta aparkalekua handitzeko proposamena ere egiten da. Orain ez dago ia lekuri kotxean pasatzeko alde batetik bestera.



4.- Bertan dagoen parkean arratoi zuloak ere badirela azaltzen dute bizilagunek. Parke guztian zehar daudela argitu da.



5.- Parkean bertan ere dauden zuhaitzen adarrak oso ahulak direla azpimarratzen dute eta askotan haurren gainean erortzeko arriskua dagoela diote




2 eta 3 Errepidearen egoera

1.- Errepideak eta espaloiek mantenu falta duela azpimarratzen dute bizilagunek. Auzo guztian zehar zuloak, belar-txarrak eta egoera txarrean dauden baldosak badirela iruzkintzen dute



2.- Etxeetarako sarrera bateko desnibela ere aipatzen dute, bertatik gurpildun aulkiak pasa ezin daitezela azpimarratuz



4 Autobus geltokia

1.- Autobusaren geltokian ez omen dago lekurik eta hortaz, lehenago/gorago gelditu behar izaten duela azpimarratzen dute auzotarrek, irudian ikusten den zebra-bidea oztopatzen du eta.



2.- Bidegurutzean dauden zaborrontziek bista kendu edo oztopatzen dutela diote, goitik datozen kotxeak ezin ikus daitezkeela esanez. Zaborrontzien kokapena aldatu beharko litzatekela aipatzen dute.



3.- Garbigunetik datozen garraioen abiadura (irudian, ezkerreko aldapa) oso altua omen da, eta erreduktore bat jartzeko proposatzen dute.

5. puntura bidean geldialdi bat egiten da espaloia-aren eta zebra-bidearen arteko desnibela zein den azpimarratzeko. Irisgarritasun aldetik arazoak dituzte gurpildun aulkietan dabiltzanak.

Altura horretan, pareko etxeetara iristeko bidearen irisgarritasuna ere zalantzan jartzen da, bidea nahiko sigi-sagatsua baita.



5 Bidegurutzea

1.- Bidegurutzean ez dago trafiko seinalerik, lurrean daude hainbat marra baina erdi-ezabatuta daude dagoeneko.



2.- Bidegurutzean ere biratzeko aukerarik ez dago, parean dauden kotxe eta autokarabanak ez baitaude ondo aparkatuta. Ibilgailu horiek ez dute bertan aparkatzeko baimenik .



3.- Hor ondoan dagoen zebrabidean ere ez dago ikusgarritasun handirik.

6 Ez da ikustea beharrezkotzat ematen*

7

Aldaparen bukaera

1.- Aldapa malkartsua da, eta bukaeran ibilgailuen “bajoak” lurra jotzen du behin eta berriz. Nibelatzeko eskaria egiten da.

2.- Honez gain, aldapa bukaeran “rejilla” moduko bat jartzeko eskatzen da, zuloa tapa dezan.



3.- Trafiko-ispilu bat ere eskatzen da, ezker-eskubitik datozen kotxean ikus daitezen karreterara atera beharrik gabe.

4.- Bizikletak eta oinezkoak errepidearen alde banatan jartzeko proposatzen da, guztien pasatzeko lekua izan dezaten.



- 8. puntura bidean, Laskorain Ikastolaren altueran zebrabide bat jartzeko eskaera egiten da, goizetan haurrak lasai pasa daitezen.



1.- Bidegurutzean, behetik datozen kotxeak semaforo ertzean geldituez gero eta autobus batek biratu behar balu, ez dira sartzen. Horregatik, semaforoa atzerago jartzea proposatzen da.



2.- Semaforoen alterazio bat ere badela diote, "reglajea" aldatu beharko litzatekeela aipatzen dute. Beheko irudian azaltzen den semaforoaz ari dira:



3.- Puntu honetan biribilgune bat behar ez ote den aipatzen dute, baina kotxeen norantza eta semaforoen reglajea dela eta, arazoak dituztela diote bizilagunek.

- 9. puntura (Otsabira) bidean, aterpean dagoen sabaiaren egoera azpimarratzen dute.



1.- Otsabi auzo-elkartearen erabilerarako da teoriarik, baina orain gazte talde batek hartu/erabiltzen du. Udalak dio, eskatuz gero hitzarmena egin eta erreforma bat egiteko prest liratekeela auzo-elkarteak erabil dezan.



2.- Azpian dauden aparkalekuen inguruan ere aritu dira. Aparkalekuaren larrialdietako irteera erakutsi dute (beheko irudian), eta irisgarria ez dela azpimarratzen dute bizilagunek.



3.- Aparkalekutik ere, udalaren lokala den, eta orain Gorrotxategi pasteleriak gordea dituen lokaletik ere ateratzeko bide bat jar litekeela diote.

- 10. punturako bidean, bertan dagoen plaza huts batean gelditu dira. Bertako bidean, "piboteak" arrankatu direla eta berriz jarri ez direla diote bizilagunek.



- Honekin batera, Parkea haurrentzako egin zegoen, baina puskatu egiten zela eta kendu egin zutela diote. Orain plaza huts bat da eta faltan botatzen dutela haurrekin jolasteko lekua.



- Plaza honetan bertan ere pibote mugigarri bat dago, baina plazan aparkatu ezin daitekeela jartzen duen kartelak beharko liratekeela diote bizilagunek, edonork edonon aparka ez dezan.
- Bertan dagoen baranda berdearen egoera ere salatzen dute:



1.- Aszensorea Eskolapioetako ikasleek erabiltzen dute eta zainketa falta dagoela diote bizilagunek. Mantenua handitu behar dela diote. (Bizilagunetako batek, dokumentu bat entregatzen du, eta bertan dagoen 4. puntuaz ari dela azpimarratzen du).



2.- Hortxe bertan dagoen transformadore elektrikoaren egoeraren inguruan aritu dira bizilagunak. Mantenu falta azpimarratzen dute, eta dokumentu bat entregatzen dute transformadorea aldatzeko proposamen ezberdinekin: "Bidebieta auzorako hobekuntzak Eskolapioko igoera".



3.- Eskolapioetan gora sasi asko dagoela diote eta mantenu beharra dagoela. Hor bertan, zubiaren azpian eta Ibarrarako bidean, "botelloirako lekua" sortu dela diote eta leku argiztatu beharko litzatekeela eskatu.



4.- Ibarrarako jaitsieran irristakor dagoela diote eta mantenu falta duela.



11 Zona peatonala


1.- Aldapan dago eta ibilgailuak (banatzaileak batez ere) oso abiadura handian ibiltzen dira. Horretarako, erreduktoreak jartzea proposatzen da. Karga-deskarga seinaleetika jartzea ere azpimarratzen da.

2.- Iturria ere lekualdatu beharko litzatekeela diote bizilagunek, haurrak asko ibiltzen direla eta ez dela segurua kalea bakarrik gurutzatzea.

3.- Informazio panel bat ere eskatzen da puntu honetan.



- 12. puntura bidea dauden Zabalarretarako eskailerak irisgarriak ez direla esaten dute eta ranpa bat beharko litzatekeela bizilagunak mugitzeko.





1.- Labezomorro plaga dagoela diote bizilagunek, plaza osoan.

2.- Autobiako pareta "estable" dagoela, baina arazoak eman ditzakeela dituen pitzadurek.

3.- Plazan zehar pitzadura gehiago badirela ere diote, erortzeko arriskuak daudela hainbat eremutan.

4.- Aparkalekuak badirela diote, baina pasabide nahikorik ez (suhiltzaileen kasua jartzen dute).

5.- Plazaren izkinetako batean bizikleta aparkalekua eskatzen da.



- Izaskunetik 13. puntura gindoazela, alde batean dauden etxeetara sartzeko kotxeak espaloitik sartzen direla dio bizilagunetako batek. "Beti egin dutela horrela" baina akaso, bide bat jarri beharko litzakeela diote.



13

Zabalarreta parkea

1.- Konpostajea utzita dagoela diote, kendu edo birgaitu beharko litzatekeela.

2.- Komun falta dagoela azpimarratzen dute. Egon bai baina itxita daudela.

3.- Sputniken artean dagoen iturria kendu eta banku bat jartzeko eskatzen dute ere.



14

Sakramentinoetarako aldapa

1.- Penditza handia duen aldapa da (Berazubira jaisten dena). Horregatik, eskailera mekanikoak jartzeko eskaera egiten da.

2.- Puntu hau bera "puntu beltz" gisa kontsideratzen da eta argiztapena ere eskatzen da.

3.- Aldapan bertan eskailera zaharkitu batzuk daudela diote eta horiek aldatu edo berritzeko proposamena egiten.



6. IRAKURKETA SINTETIKOA ETA ONDORIO NAGUSIAK

AuzoEkin prozesuak agerian utzi du Bidebieta-Iparragirre-Izaskun eremuko errealtatea anitza eta konplexua dela, aurrera begirako estrategia eraginkorrak ezartzeko potentziala ere handia izanik. Egin den azterketa datu kuantitatiboetan eta bizilagunen parte-hartzetik eratorritako ekarpen kualitatiboetan oinarritu da, errealtatearen irudi multidimentsionala jasotzeko aukera eskainiz.

Batetik, iturri estatistiko ofizialetatik eta biztanleriari zuzenean egindako inkestetatik ateratako datuek eremuaren gaur egungo erretratua erakustea ahalbidetu dute, hainbat aldagaien ezaugarritzea osatuz: hala nola, biztanleriarena, ekonomia eta enpleguarena, etxebizitzarena, ingurumena, hiri-espazioa eta garraioarena, bizikidetzarena, eta gobernantza eta zerbitzuena. Horri esker, eremuko joera nagusiak eta erronka nagusiak zehaztasunez identifikatu dira. Bestetik, elkarrizketa sakonak, focus taldeak, tailer irekiak eta ibilaldi gidatuak (deribak) bezalako tresnek bizilagunen ahotsa eta esperientzia zuzena txertatu dituzte diagnosi honen txostenean. Herriarren ikuspegi horrek zenbait datu hotzekin kontrastea ekarri du, eta askotan errealtatea modu biziago eta zehatzago batean ulertzea ahalbidetu du.

Eremuak biztanleriaren hazkunde orokorra bizi du azken aldian. Alde horretatik, bizilagunen laurdena eremura etorri berria da (gehienez 5 urte daramatza bertan bizitzen). Joera honek bat egiten du, kanpoko jatorriko bizilagunen presentzia geroz eta garrantzitsuagoarekin. Honek era berean, lan egiteko sasoian dauden pertsonen adin-taldearen sendotzea eta adin-talde gazteenen gorakada ere ekarri ditu.

Dena den, biztanleriaren piramidean ematen ari den eraldaketak oraindik ez du isla lan-merkatuaren berregituraketan, bizilagunen gehiengoa ez-aktiboa baita. Lan-merkatuari dagokionez, egun ez dago langabezia arazo bereziki larririk eremuan. Dena den, Bidebieta-Izaskun-Iparragirreko bizikidetzaren egoera ekonomikoa xumetasunak ezaugarritzen du, diru-sarrerak nahiko apalak izanik. Alde horretatik, hilabete bukaerara iresteko zailtasunak azaleratzen dira, zenbait kasutan. Egoera horren erantzule nagusietako bat da, etxebizitzari lotutako gastuen ordainketara bideratu beharreko diru-sarreraren zama nahiko handia izatea.

Eremura etorri berrien presentzia geroz eta nabariagoa izan arren, biztanleriaren gehiengoak tokiarekiko atxikimendu nahiko errotua erakusten du. Hau ordea, ez da islatzen auzogintzari dagokionean, nahiko mugatua izanik, eremuaren dinamizazioan aktiboki inplikaturako bizilagunen kopurua.

Orokorrean, bizilagunek, bere bizi-eremuaren balorazio positiboa egiten dute, eremuko giro-soziala eta ingurunea baikortasunez hartuz. Hala ere, hobekuntzarako esparruak ere markatzen dira, hiri-espazioko elementuak, ekipamendu kolektiboak, garraio eta mugikortasuna, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko gaitasuna edota auzotarrekiko komunikazioa eta adierazitako beharrekiko erantzun-gaitasuna azpimarratuz.

AuzoEkin diagnostikoaren azken faseetan –tailer irekiak eta ibilbide gidatuetan, batez ere– bizilagunen ahotsak dimentsio zehatz eta espazialago bat gehitu dio diagnostikoari. Eztabaida eta deriben bidez, argi geratu da auzotarren lehentasunak bi ardatz nagusitan biltzen direla: espazio publikoaren bizi-kalitatea eta komunitatearen aktibazioa.

Lehenik, Zabalarreta parkearen inguruan agertu da adostasun zabala: auzoaren bihotz eta topagune potentzial gisa ulertzen da, baina gaur egun egoera ahulean dago, argiztapen, mantenu eta erabilera faltagatik. Bizilagunek parkearen birgaitzea ikusten dute auzoaren biziberritzearen giltza gisa, jarduera kultural eta sozialetarako espazio malgu bihurtuz.

Bigarrenik, irisgarritasuna eta barne-konektibitatea dira eguneroko arazo nagusietakoak. Berazubi aldera jaisteko zailtasunak, espaloi eta zebrabideen egoera eskasa, eta oinezkoentzako segurtasun falta errepikatu dira. Irisgarritasun unibertsalerako konponbide txiki baina zehatzak proposatu dira: erreduktoreak, “rampa” mekanikoak, ikusgarritasun hobea eta mantenu plan erregularrak.

Komertzioaren gabezia ere agerian geratu da ere, auzoko bizitza sozialaren eta ekonomikoaren arnagune gisa ulertuta. Tokiko saltoki txikien sustapena, lokal publiko hutsen aktibazioa eta alokairu-laguntzak bezalako neurriak proposatu dira, bertako kontsumoa eta autozentratutako mugikortasuna orekatze aldera. Bizilagunek, gainera, auzogintzaren eta elkarte-sarearen berraktibazioa ezinbestekotzat jo dute. Otsabi edo Igaraldeko lokalak elkarbizitarako eta jarduera kolektiboetarako gune bihurtzea proposatu da, komunitatearen kohesioa eta belaunaldien arteko harremanak sustatzeko.

Deribetan jasotako irudiek eta oharren sistematikotasunak erakusten dute bizilagunek espazioaren irakurketa aktiboa egin dutela: oztopo fisikoak identifikatzeaz gain, auzoko eremu bakoitzari zentzua emanez eta erabilera berrien aukera zirriborratuz. Horrek iradokitzen du auzoaren ezagutza praktikoa funtsezkoa dela etorkizuneko planifikazioan integratzeko.

Hortaz, agerikoa da Bidebieta-Iparragirre-Izaskunek hainbat erronka erakusten dituela, berezkoak zaizkion indarguneak baliatuz aurrera eraman beharko dituenak eta ondoren sintesi gisa azaltzen direnak, aurrera begirako auzo-planen eta garapen estrategikoaren abiapuntu gisa baliatzeko:

- Auzoen ezaugarri soziodemografikoak: biztanleriaren gaztetze progresibo bat ematen ari da, jatorriz eremukoak ez diren bizilagun berrien erakarpen gaitasunarekin bat datorrena. Honek erronka berriak dakartza, bizikidetzaren, etxebizitzaren, hiri-espazioaren erabileraren edota tokiko ekonomiaren alorrei dagokienez, besteak beste.
- Hiri-espazioa eta zerbitzu eskuragarritasuna: Bidebieta-Iparragirre-Izaskunen Zabalarreta parkearen zentraltasuna baliatzeko beharrak, irisgarritasun eta mugikortasun gabezien hobekuntza beharrak, ekipamendu kolektiboen egokitzapen beharrak eta oinarrizko zerbitzuen eskaintza areagotzeko beharrak taxuzko garrantzia hartzen dute.
- Komunitatearen kohesioa eta auzogintza: auzo atxikimendua nahiko nabaria dela probestuz, auzogintza aktibatu eta dinamizatzeko beharra adierazten da erronka nagusien artean. Eremua bere osotasunean batzeko aukera eman ahalko luke honek, bertara duela gutxi etorritako pertsonak auzo dinamikan txertatuz eta kulturartekotasunetik erreleboa landuz.
- Ko-gobernantza eta harreman instituzionalak: AuzoEkin-en bidez irekitako komunikazio eraginkorrerako aukera optimizatu eta egonkortzeko erronka azpimarratzen da. Hortaz, auzotarren barne antolaketa eta Udalarekiko harremana sendotzeko kanal emankorrak sortzeko beharra islatzen da, bizilagunak eremuari dagozkion hausnarketa eta erabaki-hartze prozesuen protagonista bilakatuz.

Amaitzeko, AuzoEkin-ek erakutsi du tokiko garapen parte-hartzaileak ahalmen handia duela eremuaren premiei modu integralean heltzeko. Alde horretatik, talde eragileen sorrera eta oro har, burututako azterlanaren baitan aktibatutako dinamikak ezinbestean baliatu eta elikatu beharreko ardagaiak dira. Erronka nagusiak identifikatuta, hurrengo fasean lehentasun estrategikoak zehaztea eta eremurako plan errealista gauzatzea izango da funtsezko urratsa, herritarren eta Udalaren arteko lankidetzaren sendoa garatuz.

7. GAKO ETA LEHENTASUN NAGUSIAK

AuzoEkin prozesuak identifikatutako erronkei aurre egiteko eta indarguneak modu eraginkorrean baliatzeko, ondorengo gako estrategikoak eta lehentasun nagusiak finkatu dituzte bizilagunak oro har:

1. Oinarrizko zerbitzuak eta azpiegitura bermatzea

- a. Landa eremuetan, ura, saneamendua, bideen egoera eta garraio publikoa dira premia nagusiak.
- b. Auzo urbanoetan, irisgarritasun hobe, mugikortasun jasangarria eta espazio publikoen egokitzapena beharrezkoak dira.
- c. Azpiegitura hauek bizitza duin eta kalitatezkoa bermatzeko ezinbesteko baldintza dira.

2. Komunitatea indartzea eta auzogintza berritzea

- a. Auzo elkarten eta herritarren sareen rola aitortu eta indartu, belaunaldi berrien parte-hartzea bultzatuz.
- b. Kulturartekotasuna aukera gisa lantzea, auzoetako aniztasuna aberastasun bilakatuz.
- c. Elkarbizitzarako eta jarduera kolektiboetarako espazio fisikoak sortzea edo berreskuratzea.

3. Gobernantza parte-hartzailea sendotzea

- a. Udalaren eta auzoen arteko komunikazio eta interlokuzio kanal iraunkorrak sortu eta egituratzea.
- b. Kexei eta proposamenei erantzun eraginkorra ematea, herritarren konfiantza berreskuratzeke.
- c. Auzoetako talde eragileekin batera plangintza eta jarraipena egitea, erabakietan herritarren ahotsa txertatuz.

4. Indarguneak baliatzea eta aukerak aktibatzea

- a. Ingurune naturala eta paisajistikoa zaindu eta aktibatu, aisialdirako, turismo iraunkorrerako eta komunitatearen osasunerako.
- b. Auzoen historia eta memoria kolektiboa balioan jarri, nortasun eta kohesio faktore gisa.
- c. Ekonomia tokikoaren garapena bultzatu: komertzio txikia, tokiko ekoizpenak eta autoenplegu ekimen berriak.

Lau atal hauez gain, badira bestelako lehentasun orokorrak ere:

- Bitzita duinerako baldintza minimoak bermatzea auzo guztietan, bereziki zerbitzu eta azpiegituretan, eta honekin batera, zahartzearen ondoriozko premiei aurre egitea (osasun arreta, mendekotasunaren kudeaketa, irisgarritasuna).
- Belaunaldi berriei aukerak ematea, auzoetan bizi eta parte hartzeko: gazteen emantzipazioa eta auzoan bertan bizitzeko aukerak sustatzea, etxebizitza eskuragarriak eta gazteentzako baliabideak lehenetsiz.
- Udalaren eta auzoen arteko elkarlan iraunkorra egituratzea, AuzoEkin prozesua tresna eraginkor bihurtuz.

Honenbestez, AuzoEkin diagnosiaren prozesua Tolosako auzoen argazki sakon eta kolektiboa eskaini du: datuetan eta bizilagunen ahotsetan oinarritutako diagnostikoa, errealitatearen aniztasuna eta konplexutasuna agerian utziz. Bide horretan, argi geratu da erronka nagusiei aurre egiteko ezinbestekoa dela elkarlan partekatua, eta herritarren jakintza eta konpromisoa Udalaren plangintzan eta erabakietan txertatzea.

Memoria honek ondorioztatzen du auzoek indargune sendoak dituztela —ingurune naturala, historia eta komunitate-dinamika— eta horiek aktibatuz aukera handiak sortzen direla kohesio soziala, tokiko garapena eta bizi-kalitatea hobetzeko. Aldi berean, lehentasunak zehaztu dira: oinarritzko zerbitzuak bermatzea, biztanleriaren erronkei erantzutea, auzogintza berritzea eta gobernantza parte-hartzailea sendotzea.

Hemendik aurrera, AuzoEkin ez da diagnostiko hutsa izango, ekintza-plan errealista eta partekatuen abiapuntua baizik. Prozesu hau aukera paregabea da Tolosako auzoak etorkizun jasangarri, bidezko eta inklusibo baterantz gidatzeko, betiere herritarren eta erakundeen arteko konfiantza, elkarlana eta ilusioa oinarri hartuta.

8. GLOSARIO LABURRA

1. **Pisu erlatiboa:** magnitude jakin baten garrantzia dagokion erreferentziazko markoarekin alderatuta edo hark ezartzen duen testuinguruaren baitan ulertuta.
2. **Biztanleria piramidea:** une jakin batean eremu zehatz batetako biztanleriaren adinaren arabera banaketa irudikatzeko islapen grafikoa, irudikapenaren oinarrian adin talde gazteenak kokatuz eta goialdean, berriz, adin talde nagusienak.
3. **Bizikidetza unitatea:** etxebizitza berean bizi diren pertsonen batura, beraien arteko harreman edozein izanda ere.
4. **Etxebizitza huts potentziala:** bertan erroldatutako pertsonarik ez duen etxebizitza. Hau da, bertan erroldatuta ez dagoen pertsonaren bat bizi daiteke etxebizitza horretan.
5. **Emantzipazio tasa:** 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean bere kabuz bizi direnen proportzioa.
6. **Iraupen luzeko langabezia:** gutxienez azken 12 hilabeteetan era aktiboan lan bila aritu arren langabe dirauten pertsonen kolektiboari dagokion langabezia.
7. **Kontziliazio neurriak:** lana eta bizitzari lotutako gainontzeko zaintza funtzioak uztartu eta bateragarri egiteko eskuragarri egon daitezkeen aukerak edo tresna-sortak.
8. **Ongizate emozionala:** norbanakoaren harmonia eta ondo izate aldarte orokorrari dagokio. Bizitzako ohiko presio eta egoerei era eraginkor eta orekatuan aurre egiteko gaitasunari.
9. **Eremu- edo auzo-atxikimendua:** norberaren bizitokiarekiko eta hura osatzen duen komunitatearekiko kide izate sentimendua.
10. **Oinarrizko zerbitzuak:** pertsonen eguneroko bizimodua ahalbidetzeko ezinbesteko baliabide eta aukerak, gutxieneko bizi kalitate estandarrak bermatzeko funtsezkoak direnak.